



Baleike

Zumaiako herri aldirkaria. 12. zbkia.
1995eko maiatza. 100 pzta.

Agintari berriak
herritarrok jarriak



Hauteskudetako
gehigarri
berezia

San
Telmoak
argazkitan

Erreportaia Tindouf (Sahara)
kanpamenduko
kontuak

Kirolak Plaieroak eta
pala txapelketa



(Javier Carballo utzitako argazkia)

Uholde kontuetan nahiko esperientzia handiko herria da gurea, zoritxarrez. 1951 inguruko argazkia izan daiteke hau; erdi-erdian ikusten dezuen etxe hori Rosendonekoa da eta oraindik ere hor dago, Basustabidean, baina gaur egun lantegiz inguratua dago.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



ZUMAIako INSTITUTUA
Aita Mari Auzategia, z/g
20750 - ZUMAI
86 08-09/86 08 10



Zumaiako Udalak diruz
lagunduriko aldirakaria



BALEIKE

HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea
tfnoa: 86 10 56

argitaratzailea

**ZUMAIAKO GAZTE
BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua
Esther Martinez
Itziar Manzidor
Xabier Azkue
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta
Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea,
Miriam Romatet,
Aitor Leiza, Izar Martin,
Imanol Manterola, Ander
Hormazuri, Jon Manzidor

publizitatea
861056 tf.

inprimategia

Gertu Koop. E.
(Zubillaga - Oñati)

tirada: 600 ale

Lege gordailua: SS-405/94

BALEIKEk ez du bere gain
hartzen aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzunkizunik.

Argazki Zaharra.....	2
Hitzaurrea.....	3
Iritzia: Udala eta txosnak.....	4
Gai Librean.....	5
Ze Berri?: Babes ofizialeko etxebizitzak.....	6
San Telmoak: argazkitan.....	9
Erreportaia: Tindouf.....	12
Antimilitarismoa: Neska intsumisoak.....	14
Olarru zopa.....	15
Sexualitatea: Birjintasuna.....	16
Inkesta fotografikoa:.....	17
Izerdi patsetan: Plaieroak. Pala Txapelketa.....	18
Gaztedia: Gazte Batzordea.....	20
Literatura: Koplak.....	21
Kultur Agenda:.....	22
Musika: Martxaundi II.....	24
Denborapasak.....	26
Merkatu txikia.....	27
Lehiaketa.....	28

Hitzaurrea

Konturatuko zineten bezala, oraingo honetan astebete beranduago kaleratu degu Baleike aldizkaria. Baina ziur gaude pena merezi duela zai egoteak.

Hilabete honetarako zenbaki berezia prestatu degu hain garrantzitsua den gai honi buruz ondo informatuak egon zaitezten. Bestetik, San Telmotan ateratako argazki interesgarri eta xelebreenak bildu ditugu, jendea pixkat xirikatzeko asmoz.

Honetaz gain, hilabetero aldizkaria osatzen duten beste atalak izango dituzue. Ah! eta ez ahaztu, hau 12. zenbakia dela, eta hurrengo hilabetean gure lehen urtebetetzea izango dela,... baina garaian garaikoak.

PREMIAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea.....	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 2172
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

UDALA ETA TXOSNEN BAIMENA

Festak hurbiltzen ari ziren heinean, Zumaiko beste hainbat taldek bezala, Jarraikook ere, festetan txosna bat ezartzeko erabakia hartua genuen. Horrela bada udalarekin hitzegin eta baimena jaso, txosnak ze lekutan kokatu, txosna montatu, edari denak eskatu eta guztia jada festetarako prest zegoenean ... zzzzaaappp! Ukabilkada. Udaletxetik eskutitz bat igorri ziguten txosna jartzeko baimena ezeztatu egiten zigitela esanaz. Eskutitza txosna irekitzeko asmoa geneukana baino hogeita lau ordu lehenago iritsi zitzaigun, hau da, apirilaren 20an iritsi zen ukaketa.

"Eta orain zer?" pentsatu genuen eskutitza eskuetan geneukalarik. "Nola, bada, orain zer? Aurrera jarraituko dugu, dena prest baitago". Gainera eskutitza irakurri ondoren txosna irekirik egon ez zedin emaniko bi arrazoiak, ez zirela batere trinkoak iruditu zitzaigun. Arrazoiak honakoak ziren:

1.- "Txosna zabalik egoteko baimena, politika mailan eskuhartzerik ez duen taldeei ematen dietela eta Jarrai talde politiko bat denez baimena ukatua daukala".

2.- "Txosnetako taldeek legalizatuta egon behar dutela eta Jarraikook ondo jakin genekiela, ezingo genuela talde bezala legepean egon".

Zumaiako JARRAI



Nola ausart daitezke horrelako astakeriak esaten. Lehenbizi esan bekigu eskutitzaren igorleak POLITIKA mailan sartua egotea zerri hotsegiten dion. Ez al da ba guztia politika? Politika hitza beti erabili izan da mamu bat bezala eta mamua baztertzen hasteko garaia bada.

Hor barnean ezkutuko beste arrazoi batzuk daudela esango genuke

Gizarteak aurrera daramatzen ekintza guztiak politika dira. Gazteek militarismoaren aurrean duten desadostasuna politika da. Kutsatugabeko eta mundu hobe baten aldeko jarrera politika da. Gazte arazoetaz arduratzea eta Euskal Herrian jasaten ari garen errepresioa salatzea ere politika da. Dena da politika. Politika da, baita ere, GAZTEEI DEBEKATZEA beraiek nahi duten erara antolatzen.

Beraz, guzti hau politika bada, zergatik esan Jarraikoei talde politiko bat garela? Zergatik Jarrai taldeari soilik ukatu txosna zabalik egotearen baimena eta beste taldeei ez? Areago, nor da udaletxea herritarrei zerbait ukatzeko? Udaletxea ez al dago ba herriatarren zerbitzurako? Hor barnean, ezkutuko beste arrazoiaren batzuk daudela esango genuke, eta ez badira ausartzen esatera zer beraiek jakingo dute zergatik.

Bigarren arrazoiari dagokionez aldiz, talde bezala ezin dugula legalizatuta egon gezurra da. Zumaiko herritar eta talde garen aldetik, izen baten pean, lege aldetik talde bezala sortua izateko eskubidea baitaukagu. Gainera udaletxea bera izan zen txosnetako talde ezberdinei esan ziena, ez zegoela presa handirik talde bezala legepean eta San Pedrotan berriz jarri behar bagenituen txosnak ordurako legalizatzeke, San Telmoak lasai igaroaz. Beraz zer diotsate udaletxekeok? Guri aurka egiteko arrazoiak atera ezinik dabilta, bare dagoen ur dena nahastu eta aztoratu nahian.

Beraz, garbi dago, udalaren arrazoiak batere sendoak ez zirenez jarraitu zuela gure txosnak zabalik. Honekin garbi dakusagu ez garela gazteok hainbat arazo sortzaile, arazoak beste interes batzuen ildotik datozelarik. ■

**LANDARE
LOREDENDA**
Baltasar Etxabe, 5
Tel. 862472 ZUMAIA

**ZUMEA
TABERNA**
Erribera kalea, 2
Telefonoa: 861125
ZUMAIA

**Gastedi
kirolak**
Kirol jantzerik egokienak
preziorik hoberenetan
Etxezarreta 9 - Zumaia

EUSKARA



BELEN GOLMAIO

BALEIKE aldizkariak eskainitako aukera honetaz baliatuz, gure hizkuntzari buruzko zerbait esatera natorkizue.

Badakigu, betidanik Zumaia herri euskalduna dela eta zumaiaerok euskaraz hitz egiten dugula. Orain, gainera, gure ikasle garaian ez bezala, herriko ikastetxeetan euskaraz ikasteko aukera ere badago.

Beraz, badirudi, ez lukeela arazorik egon behar euskaraz aritzeko. Hala ere, kaleetan zehar gabiltzanean belarria adi adi jartzen badugu, berehala ohartzen gara, Zumaian gaztelaniaz barra barra egiten dugula.

Egia esan, arazoa ez da Zumaian bakarrik gertatzen, baina beste herri batzutan euskararen erabilera areagotzeko neurriak hartzen diren bitartean, hemen ez dugu oraindik ezer egin euskararen erabilera sendotu eta herri mailan euskara bultzatuko duen zerbait sortzeko.

Baina, inoiz ez da berandu eta oraindik garaiz gaudela uste dudanez, beharrezko ausardia izan beharko genuke, euskara ardatz izango duen talde bat sortzeko. Herriko gazte eta helduez osatutako talde bat, partehartzaileen pentsakera zein den begiratu gabe. Zumaia herri txiki bat da eta denok elkar ezagutzen dugu; hala ere, alderdikerien gainera euskara ipartzat hartu eta herriko euskara suspertuko duen taldea osatzen saiatu beharko genuke. Lehenengo urratsak ematea da zailena, erabakia hartu eta ekitea, baina herriko euskarari "motorra" jartzeak ahalegin hori merezi du.

Baleike, hurrengo BALEIKE batean "motorra" martxan jarri dugula esatera etortzea. Ordurarte.

SAN TELMOAK



JOXE JOAKIN AIZPURUA

San Telmoetan ondo pasatzen saiatu gera gogotik erropa urdina soinean eta zapi txiki bat lepotik. Euri pixka bat egin zun arren ez zun batere inportik jende gehiena busti zelako barrutik eta kanpotik

Festa batzuri ekiten die bakoitzak ahal dun bezala neska eder bat ikusi nuen nik eraso berehala bertso koxkor bat bota nion da esan zidan jai neukala orain bertso hauek irakurrita hobeto pentsa dezala



Foto Gar
Aldizkari,
egunkari
eta opariak
Erribera kalea 21

Huntza, o.k.
DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIXKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA
lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

Itzurun
ATEAK-PUERTAS
Era guztietako
egurlanak
Itzurun zuhaitzbidea
Tlf: 861565 - 143446

Babes ofizialeko etxebitzen obrak hasi dira

Obren hasierarekin batera, lehen arazoak Alai auzategia eta udaletxearen artean

Iazko uztailaren 19an izandako lehen bilera hartatik obrak hasi arte -apirilaren erdialdean-, denbora dexente pasa den arren, lehen etxe-blokea eraikitzen hasiak dira. Lehen bloke honetan 36 etxebizitza joango dira.

Baleike



Argazkian ikusten diren baratzatzetatik eskubialdera eraikiko da lehen blokea

Poligonoko 3. sektorearen barnean, dakizuenez, babes ofizialeko bi bloke eraikiko dira, eta lehenengoaren obrak hasi dira dagoeneko. Pibotajearekin amaitzen ari dira eta badirudi oraingoz martxa ona daramatela. Babes ofizialeko etxebizitza hauen balio zehatza oraindik ez dakite, obren arabera izango baita, baina tope bezela 16 milioi jarri dute. Honek sortu ditu kritika gogorrenak, gazteentzat oso zaila baita horri aurre egitea.

3. sektoreko obra hauek aurrera joan ahala, Alai auzategiko kale itxua, Ayra Durex alderate aterako dute, kale irekia bihurtuz. Gainera, babes ofizialeko bi blokeetaz gain, beste lau bloke eraikiko dira. Horretaz gain, parke antzeko bat ere bai. Gogoratu abuztuko zenbakian informazio hau landu genuela eta bertan dezuela proiektuaren planoak.

Alaiko auzokideak haserre

Hala ere, lanak hasi bezain pronto, arazoak eta haserreak sortu dira Alai auzategiko auzokideen artean. Hauen ustez, udaletxearen jokabidea ez da garbia izan, eta egun batetik bestera sartu omen dira jardinean honen zati bat izorratuz. Auzokideen ustez, egokiagoa zen Alaitik sartu baino estazio edo Ayra Durex aldetik sartzea. Gainera, jardina beraiena omen da, Azpeitiako erregistroan jartzen duenaren arabera.

Udaletxearen iritzia berriz, bestelakoa da. Jardinak herriarenak direla diote, inguruko kale eta urbanizazioak bezelaxe. Arazoa hau da: Poligonok ez diola eman udaletxeari jardinak zaintzeko ardura, eta beraz beraiek zaindu behar dituztela. Horrek ez du esan nahi auzokideena denik. Horrek betebeharrak baino ez ditu suposatzen. Udaletxearen ustez, egokiena auzokideentzat jardinen zainketa udaletxeari ematea litzateke.

Auto - Konponketak

ELKAR



Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

JOSEBA OSA

- ITZULPENAK -

EUSKARA-GAZTELERA-
KATALANA-INGELES-
FRANTSESA

tel / fax: 148065

SAN TELMO LITERATUR SARIEN BANAKETA



Lehengo apirilaren 27 San Telmo literatur sariak banatu ziren, 15 urtetik beherakoan mailan eta hiru arloetan; olerkian, bertsoan eta hitz lauz (ipuinak).


Andoni Egaña inguratu zen lehenbizi hitzalditxo bat eman eta jarraian sariak ematera. Andonik literaturan, bertsolaritzan eta telebistan izan dituen esperientziak kontatu zizkien Forondara inguratu ziren guztiei, baina batez haur eta gaztetxoei, eta sortze-lanean aurrera jarrai zezaten gonbidatu zituen.

Ekitaldiaren amaieran liburuak sinatzen aritu zen eta gustora jarri zen denen erdian argazkia ateratzeko. **ZORIONAK DENOI!**

BI MOTORA HONDORATU ZIREN

Apirilaren 20an gertatu zen, zubi txikiaren ondoan. Bat hondoratzen hasi zen eta bestea honen ondoan lotua zegoenez, biak batera joan ziren hondora.


Istripu txiki honek ikusmin handia sortu zuen moila inguruetan eta jende asko bertaratu zen "erreskate" lanak ikustera. Urpekari edo submarinista batzuen laguntzaz motorak berriz ere flotean jartzea lortu zuten eta ondoren lehenbizi hondoratu zena arranplara eraman zuten, behar zituen konponketak egitera.



 **Ur-gintza SL**

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g Tel: 148082
78 Posta kutxa Fax: 148081
20740 IRAETA - ZESTOA




NIKOL-ENE

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

**JOANTO
DORRONSOREN
DOINUTEGIA
KALEAN DA**



15 urtetan zehar egindako lan garrantzitsua biltzen du

Ia denok ezagutzen ditugu BERTSOTAN I eta II bere aurreko liburuak. Hauek atera ondoren burubelarri aritu da azken lan honetan, baina lehendik ere hasia zen bilketa lanak egiten.

Bertso forma duten 2.196 doinu bildu ditu Joanitok guztira, eta lau liburuki edo tomotan banatu ditu, neurriaren arabera: zortziko txikikoak alde batera, handikoak bestera, eta abar.

Orrialde bakoitzean doinu bat agertzen da, pentagrametan irudikatua,

eta honen azpian doinuaren ezaugarriak aipatzen dira: Izena, jasotako lurraldea, nork bildua den, zer berezitasun dituen, aldakiak e.a.

Solfeo jakitea komenigarria da lan hau erabilgarria gerta dadin, baina hala ere musika eta batez ere bertso mundua gustokoa duen edonoreztat interesgarriak gerta litezkeen liburuak dira zalantzarik gabe.

Uste baino gehiago kostata, baina azkenean KUTXAren laguntzaz Bertsolari Elkarteak argitaratu du eta 13.000 peztan dago salgai.

**EUSKARA IKASTEKO
DIRULAGUNTZAK**

Zumaiako Udaleko Hezkuntza eta Euskara batzordeak, 1994/95 ikasturteko euskarazko ikastaroetarako dirulaguntzak emango ditu.

Honetarako bi deialdi egingo dira. Lehenengo deialdian parte hartzeko, **ekainaren 15etik uztailaren 10a bitartean** aurkeztuko dira eskaerak. Bigarren deialdian, berriz, **irailaren 1etik 10era**.

Dirulaguntzak eskuratzeko baldintzak honako hauek dira:

- Klaseetan gutxienez %75eko asistentzia izatea egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztea.

- Ordaindutako matrikularen ordezkagiria aurkeztea.

- Zumaian erroldatuta egotea.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Udaletxeko Euskara Zerbitzura deitu bulego orduetan, goizeko 8etatik eguerdiko 3retara bitartean.



Foto Amertze

Erribera Kalea, 6
Telefona: 86 17 07
Fax: 86 17 07
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



Xanti
ALTZARIAK

Amaiako plaza, 7
Tel.- Fax: 862385
20750 ZUMAIA

**BELARDENDA
SIWA**



Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012



Sarai
Informática

Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefona: 862228 ZUMAIA

xirula



ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA
Tel. 861705



Musika eskolakoek kalejira alai eskeini zuten txupinazoaren ondoren. Lehen asteburuan berriz, Izustarri txarangakoak izan ziren gau eta egun giroa berotzen aritu zirenak



San Telmo egunean jende asko bildu zen dantzari txikiak ikustera. Azken igandean Aita Mari arraun elkartekoak antolatu zuten aurten sardin-jana, borondatea kobratu eta arraunlarientzat dirua bildu asmoz.



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19 Telefonoa: 861433
20750 ZUMAIA Fax: 861067

MAITE
ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen sendabidean


Amaiako plaza z/g Tlf: 143278





Loitz

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuadernazioak
- Plastifikazioak
- Fax Publikoa
- Aldizkari eta Opariak

Erribera Kalea, 4
Telf: Fax: 14 34 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



Aurtengo nobedadea Amaiaiko plazan jarritako txosnak izan dira. Hauen inguruan giro ederra sortu izan da, batez ere gauzez. Tarteka ondo etortzen da bokadilo bat, batez ere, honi bezela solomo artean mila duroko bat agertzen bazaizu...



"Eutsi Papix, eutsi!!". Ematen duena baino zailagoa da harri txiki hori bizkarreratzea. Eskerrak Txorta eta konpainia hortxe dauden beti haizea emateko prest!



MENDI - ONDO
ELEKTRIZITATEA

Axular 14
20750 ZUMAIA

Telefonoak:
860074 - 861569

- ALARMAK
- ANTENAK
- * Banakoak
- * Kolektiboak
- * Satellite bidezkoak
- Atezaia automatikoak
- Eta abar.




DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10. behe
Telefonoa: 862051

**SUKALDEKO
ALTZARIAK**

20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)



Batzuk gaua neskatan eta dantzan egiteko aprobetxatu zuten bitartean, beste batzuk San Telmotako bixerei erabilera berriak bilatzen saiatu ziren. Inglaterrako bixitari honek lo egiteko era berezia izateaz gain izugarritzko zurrunkak egiten zituen. Behekoak, berriz, Justa ireki zai daude salda beroa hartu ahal izateko.



Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAIA

SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidaiariak garaiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416

SEI ZUMAIAR BASAMORTU ERDIAN

Saharai herriarekin egun batzuk igaro dituzte

Tindoufeko basamortuan


Iaz gertatu zen bezala, zumaiar talde bat aurten ere Tindoufeko desertuan izan da saharaiar herria bisitatzen. Aurreko aldian alderdi politikoetako ordezkariak joan baziren, oraingoan gazte jendea apur bat hango egoerara hurbiltzea izan da bidai honen helburuetako bat. Honetaz gain, bertara era guztietako materiala eramane da laguntza modura.

Igor Uranga

Beroa, egarria, gameluak...non? Hauxe izan zen Tindoufeko basamortuko kanpamenduetara iristen ari ginela hartu genuen lehen inpresioa. Gutxi balitz, ze ikusiko basamortuan eta berdeguneak, belar batzuk, ur putzu txiki batzuk ere bai, gehiegi. Basamortuan ez al geunden, ba?

Denok zeharo harrিতuta geunden, basamortuaz genuen ideia guztiz bestelakoa baitzen. Bertan gehiagotan izan zirenek ere ez zuten sinisten, horrelakorik ez zutela sekula ikusi eta. Guzti honen arrazoia, aurreko urtean egondako uholdeak omen ziren. Baina beno, aurrera jo genuen zegokigun kanpamendura iritsi ginen arte.

Ailegatu orduko eta ingurunea lasai eta patxadan gainbegiratu



Emakumeek paper garrantzitsua betetzen dute herrialde saharaiarrean



Ez zaie humorerik falta,ez!

beharrean, zer egingo eta denok "japonesito" batzuk bezala argazkiak ateratzen hasi ginen zoro moduan. Egia esan behar bada, irrifarrea galtzen ez

bazuten ere agobiatu xamarrak sentitu ziren saharaiak; normala.

Pixkat lasaitu ginenean jendearekin harremanetan jartzen saiatu ginen. Ez zen batere zaila izan, oso irekiak eta maitagarriak baitira.

Bakoitza bere "haimara" joan ginenean (beren etxea den lonazko denda) bertan bizi zen emakume bat eta bere seme-alabak ezagutu genituen, hasera-haseratik besoak irekita hartu gintuztelarik. Berehala lagun sentitu ginen.

Kanpotik datozenak hartzeko oso ondo antolatuak daude, arreta eta erosotasun guztiak eskeiniz. Segituan integratu ginen hango bizitzan, batek baino gehiagok arazoren bat edo beste izan bazuen ere janaria eta edateko urarekin.

JZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

EGOKI
ERLOJU DENDA

E:Gurrutxaga plaza,6
ZUMAI

Abertzaleak oso


Orduak aurrera zihoazen eta saharauiekin tratuan sakontzen ari ginen bezela, azkar asko konturatu ginen beren jatorrizko lurraldearekiko duten malenkonia, baina era berean arrabia, ezin dutelako beren herrialdean bizi. Benetan erraiak ikutzen zizkigun, beren lurraldeaz hitz egiteko erabiltzen zuten karga sentimental bortitzarengatik.

Hauxe izan da agian, gogoan geratu zaigun gauzarik garrantzitsuena. Beren herriarekiko duten maitasun mugagabea, ondorioak begiratu gabe, denborari begiratu gabe eta bizi baldintzak edonolakoak izanda ere.

Ikusi bestela, hogeitaz urtez Marruekoson aurkako gerra batean daude murgilduta, beren independentzia, askatasuna eta herrialdea berreskuratu nahian.

Saharauiek beren herrialdearekiko duten maitasuna mugagabea eta oso bortitza da

Ah, eta nola ez, tea. Denboraldi batez te bat hartzea zaila izango zaigu, ze nahiz eta goxoa izan (hobeto esanda, gozoa), azkenerako ia belarrietatik irtetzen zitzaigun. Egunean hamabitik gora edaten genituen, pentsa. ■



Gizonezkoak frentean daudenez, emakume eta gaztetxoak dira kanpamenduak zaintzen geratzen diren bakarrak.

Saharauiekin elkartasunean

Saharako herriarekin dagoen elkartasuna eta laguntza kanpaina Eusko Jaurlaritzak hasi zuen eta poliki-poliki erakunde ezberdinetaz gain, Udalerrri bakoitzak bere iniziatiba propioak eramaten hasi dira.

Baina propioak badira ere, guztia elkartasun kolektibo baten barnean kokatzen da. Elkartasun honen ispilua da, gero eta herri gehiago senidetzen ari direla Saharako herriekin eta etorkizunean gehiago izango direla anaikidetuko direnak.

Zentzu honetan, Zumaiako herria hango herri batekin senidetuta dagoenez, elkarrekiko hartueman hori sendotzeaz gain, herriko jende

ezberdin batek hango berri izan dezaten nahi du, instituzio edo politiko mailan geratu gabe eta bide batez herritarrarengana gehiago hurbilduz. Horrela, egin berri den bidaia honetan gazteak suertatu dira saharaui herrialdea pixkat gehiago ezagutzeko parada izan dutenak.

Iaz manta bilketa bat egin zen bezalaxe, hemendik aurrera elkartasunezko beste zenbait ekintza aurrera eramateko asmoa du Zumaiako Udalak. Iniziatiba partikularrek ere badute lekua, jakina. Beraz, animatu; merezi du eta badute beharra gainera.

Surf

Torre Luzea, 2
Tel. 83 50 24
20800 ZARAUTZ

Embera, 4/II
Tel. 86 23 69
20750 ZUMAI

ARRAIN ETA MARISKOAK

BARAZKIAK

MARES ETA AURREZ

PRESTATUTAKO JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

leize

TABERNA

Juan Belmonte, 6
Tel. 860415 ZUMAI

Neskek ere intsumisiaoa!

Orain dela gutxi, Zumaiako hiru neskek, Defentsa Ministerioari bidalitako gutun baten bidez, intsumisoak direla adierazten zioten Defentsa Ministro txit gorenari. Gu Ez Goaz-ekoek erabaki hori zergaitik hartu duten jakin nahi izan dugu eta guri azaldu ondoren herri guztiak jakitea garrantzitsua dela iruditu zaigu. Elkarrizketa motx horretan Argi, Esti eta Aranek beraien arrazoiak eta antimilitarismoari buruzko ikuspuntua azaldu ziguten.



Zergaitik bidali dituzue intsumisioko paperak Ministeriora?

Beti sentitu degu zerbait egiteko beharra, ezin dezu jarrita geratu ingurukoek jarrera zailak hartzen dituzten bitartean. Zer egin dezakezun galdetzen diozu zure buruari eta aukera hau ezagutu genuenean animatu egin ginen, zalantzarik gabe.

Soldadutzarekin bukatzea ez da bakarrik gizasemeen lana, emakumeak ere parte hartu behar du. Gizarte osoak du erantzunkizuna, emakumeak, jubilatua, soldadutza egin dutenak e.a. Jarrera kolektiboak dira eta emakumea ez dago kanpo, denon artean aldatu behar dugu gizartea.

Gainera guk eskubide osoa dugu horren kontra egiteko, beraiek automatikoki eskluitzen gaituzte, kanpoan uzten gaituzte, guk berriz ez dugu onartzen arazo honetan baztertzea eta parte hartzen dugu.

Emakumearen parte hartzea arazo honetan ez da erreza, nola inplika daiteke?

Hasieran manifa eta beste mobidetara joaten zara, gero intsumisoekin batera autoinkulpatzen den emakume asko dago, eta azkenik karta hau bidaltzea erabaki genuen, argi eta garbi azaltzeko gu ere intsumituak gara.

Badakigu azken erabaki hau, karta bidaltzearena alegia, nahiko sinbolikoa dela, Ministerioan paperontzi triste batetara botako dutela, alde horretatik ez dugu arrisku

haundirik, gizonezko intsumisoak duten bezala: epaiketak, kartzela e.a., baina guretzat ez da txorakeria, nahiz eta zerbaiten arriskua egon guk berdin berdin egingo genuke.

Emakumearen partaidetza aktibo xamarra iruditzen zaigu, intsumisoek orain arte egin dituzten ekintzetan, manifestan, neska asko ikusten dira, solidaritate haundia erakutsi dugula iruditzen zait. Era batean edo bestean arazoak ikutzen zaitu, lagun bat ezagutzen duzu, zure anaia, mutilaguna e.a.

Ados daude intsumisia mugimendu garrantzitsua dela eta interesa piztu zuela hasieratik beraengan. Gizartea aldatzeko bidea dela pentsatzen dute eta soldadutzaren ilogikotasuna azpimarratzen dute "Absurdoa da, ezin da justifikatu pertsona batzuek urte betean ejerzitoan sartzea, gerra garai bati aurre egiteko. Ejerzitoa beharrezkoa bada, profesionala izan behar zuen, oraingo sistemak ez du logikarik".

Illo horretatik jarraituz, diru gehiegi gastatzen dela militarren gauzetan iruditzen zaie, eta diru hori beste edozertarako erabil daitekela. Kreatibitatea lantzeko adibidez eta ez suntsipena.

Azken mezua bidaltzeko eskatu diegu eta animoak ematen dizkigute, itxaropena dute guztion artean zerbait lortuko dugula, indartsu ikusten dute mugimendua eta jada gauzak aldatu direla diote. Musika gustoko dutenez, eskopetak flauta bihurtzea proposatzen dute eta banda militarrik ez! oihukatzen dute.

ERROTA
ERROTA
OPIL - OKINDEGIA



Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
ZUMAIA

BASUSTA
ERRETEGIA



M^a Dolores Aizpurua
Pantxita Etxezarreta, 25
Telefona: 862073
20750 ZUMAIA

AXIER KIROLAK



Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA
Telefona: 862206



Motxian hi!

Nor: J. Luis Aizpurua
Nola: "Josele"

- Zein da zure afizioa?
Deporte asko egitea
- Lagun artean zeri diozu nazka?
Gezurriari
- Lo ala jolastu?
Jolastu
- Lana ala parranda?
Parranda, parranda!
- Zumaia ala Bilbo?
Zumaia
- Zerk sortzen dizu barregurea?
Jendia mozkortzen danian iten duna.
- Zertaz zaude maiteminduta?
Bizitzaz
- Zerk sortzen dizu hotzikara?
Afrikako egoerak, gerren ondorioak.
- Beldurrik bai?
Bai, heriotzari
- Ze eskatzen diozu bizitzari?
Lana, osasuna eta maitasuna, denak bezela
- Zure gorputzeko zatirik sexiena?
Bizkarra
- Konplejurik bai?
Pila bat.
- Berezia sentitzen zara?
Ez
- Ze kantatuko zenioke zure neskari?
Mendian larra artean aurkitzen da loretxo bat,...
- Ze eskatzen diozu neska bati?
Polita eta inteligentia izatea.
- Zer dio Joselitak?
Ez det ezagutzen

Kontu-kontari

HILA BIZIRIK

Zumaiar batzuri urrungo ahaide bat hil zitzaien. Egunkarian eskela ikusi zuten eta hala jakin zuten "Trezet" hil zela. Ez zeukaten harreman handiegirik familia harekin eta egunkaritik jakin zuten nora joan behar zuten. Pasai San Juanera joan behar zuten.

Hiru lehengusu harantz abiatu ziren, Pasaian defuntuaren etxea han-hemen galdetuz topatu zuten eta barrura sartu ziren. Hilaren aurrera sartu ziren eta hiru gizonak errezatzen hasi ziren belauniko. Hila, ohi bezela, luze etzana zegoen ohean, oinak goruntz zituela. Halako batean oin bat behera erori zen, alhora alegia. Zumaiarrek elkarri esan zioten:

- Ikusi al dek hori? Hanka mugitu dik!
- Zuek zumaiarrak izango zerate-esan zuen ohekoak-.

Zumaiarrak harritu ziren, bai eta bildurtu ere. Hilaren andre alarguna zen hura, atsedenean zegoena. Okerreko gelan sartu ziren. Defuntua alboko gelan zegoen eta zumaiarrak hara joan ziren gero, pasiluan zehar denei eskua emanaz eta agurtuz.

- Hor zio, bai!- esan zioten ahapetik elkarri eta buelta egin omen zuten, batere errezatu gabe-.



ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
- ALBAITARIAK -

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

LARRIALDIAK
- 24 orduetan
- Zeure etxean
- Telef. 900-282828
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR FOTOKOPIAK

- * Enkuadernaketak
- * Plastifikatzeak
- * Fax publikoa
- * Bulegoko materiala

Basadi, 14 behea Tfnoa: 143120
ZUMAIA Fax: 143120

Emakumeen "himen"-a izan da gaur egun arte hauen "kalitatezko labela", birjintasunaren seinale. Pentsakera hori gizonak emakumearen gain zuen jabego zentzuan dago oinarrituta. Zorionez, kultura hori ia desagertu da, eta dagoeneko, ez zaio eskatzen emakumeari inolako "birjintasun agiririk".

Agur betirako, birjina maitia



Birjintasunari ematen zaion garrantziaren atzean, sexualitatearen kontzeptzio ezkorraz gain, emakumea gizonaren jabegoa bezela ikusten duen kultura dago. Gainera moral bikoitza dago: gizonezkoetan ezin da demostratu; emakumeetan berriz bai -teorian behintzat-. Hau da, birjintasunaren arazoa emakumeak "himen"-a baduen edo ez duenera mugatzen da.

Hau kontutan hartuz, penetrazioa kenduta nahi ditugun "lizunkeria" guztietaz goza dezakegu, eta lasai, gure birjintasuna salbu egongo da. Eta era guztietako trikimailuak asmatzeko kapaz gara moralaren betebeharrak errespetatzeko. Muxukatu, biluztu, elkar masturbatu,... baina hori bai, penetrazioa ez! Pekatua!! Hori al da birjintasunaz degun kontzeptzioa?

Lehen esan degu gizonezkoetan ezin dela birjintasun eza demostratu, eta emakumeetan bai berriz, teorian. Teorian, praktikan ez baita horrela. Emakume batek "himen"-ik ez izateak ez du esan nahi harreman sexualak izan ez dituela.

Himenak betetzen duen papera neskatzak infekzioetaz babestea da. Emakume bihurtzean, funtzio hori maginako sekrezioek betetzen dute, eta himenak jadanik ez du inolako funtziorik. Horregatik, askotan bera bakarrik desagertzen da. Edo edozein mugimendukin apurtzen da. Eta oraindik irauten badu, tanpoien erabilerarekin betirako desagertuko da. Beraz, penetrazioa izan baino lehen beste mila faktorek amaitu dezakete himenarekin.

Eta alderantziz ere gerta daiteke. Himena oso malgua izan daiteke, eta

askotan penetrazioa ere jasan dezakete. Gainera likidoak pasatzen uzteko gaitasuna du, eta batzutan emakumeek umea izaten dutenean apurtzen dute himena. Hauek ere birjinak al dira?

Beraz, ikusi degu birjintasunaren existentzia ezin dela fisikoki demostratu, eta sexualitatea kontrolatzeko eta erreprimitzeko metodo bat baino ez dela. Birjintasuna akaso aukera moral bat izan daiteke, baina aukera pertsonala, eta ez besteei eskatu behar zaien zerbait, orduan hipokresia sartzen baita jokoan.

Harreman sexualak noiz izan, norberaren erabakia da. Ez da presarik izan behar, baina ezta ere errepresioaren beldurrik. Zeurea da erabakia! ■



ZUMAIA



AUTO-ESKOLA



* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
 * Praktika eta azterketak Azpeitian
 * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea
☎ 861018

20750 ZUMAIA



balezulo

inportaturiko erropa
eta artisautza

Basadi 3 Zumaia



**Evaristo
Osa**

Diru guztia parrandan gastatuko nuke, baina ez edanian.



**Mikel
Alkorta**

Estudiotan segi eta Estatu Batuetara bidai bat Amazonia aldian beltzak ezagutzeko.



**Felix
Aizpurua**

Trinau bat erosi.



**Marijo
Yeregui**

Bidaitxo bat egingo nuke. Lehenbizi tour bat Europan zehar, eta gero deskantsatzera Kanariasera.



**Vanesa
Arbelaitz**

Etxeko gauzetan laguntzen edo familian banatuz. Asko sobratu ezkerro Somaliakoentzako bidaliko nuke.



**Joxe Antonio
Alberdi**

Aurrena etxian banatu, koadrilarekin afaria, parranda batzuk eta kotxe bat. Ah! eta bidaitxo bat ere ez zen gaizki egongo.



**Joseba
"Artia"**

Andria eta dena laga eta neu bakarrik pardeltxo hartuta jun.



**Asier
Arriola**

Oporretara joango nintzateke, familiari lagundu eta denok ondo bizitzen saiatu.

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Belardenda

Paki



erribera 2
Tlf: 143156

OSASUN NATURALA

ONCE

**JOXE
MANUEL**

**Kupoi batzuk
erosi eta ...**

ZORTE ON !!

Aginagalde Taberna- Gerezi Fruitategia plairotako txapeldun

Finalean Axier Kirolak taldea gainditu zuen

Apirilaren 29an eta 30ean jokatu ziren plairotako azken partiduak, San Telmotako errepikapenetan alegia. Final nagusia baino egun bat lehenago, Kopako finala jokatu zen, Kabi Tabernak Urberu Sagardotegiari 4-0 eko emaitzaz irabaziz. Hurrengo egunean berriz, Aginagalde eta Axier Kirolak taldeek ikuskizun polita eskeini ziguten. Azkenean, iazko txapeldunek burua makurtu beharra izan zuten 3-1 eko emaitzaz galduz.

Baleike

Ez da ustegabekorik izan aurtengo plairotako azken partiduetan. Ligako finalean Aginagalde-Gerezi Fruitategiak eskuratu badu garaipena, Axier Kirolak joan den urteko txapeldunak ere aukera berdinak izan zituen finala irabazteko. Edozein modutan, azkenean lehenengoak suertatu dira garaile.

Bi talde hauek finalean egotea arraroegia ez bada ere, ezustekotzat jo daiteke agian lehenengo fasean hain ondo ibili zen Ximitaxio taldea hor aurrean ez agertzea.

Final erdietara ailegatu baino lehen, partidu guztiak irabazi zituen eta bazirudien beraiek izango zirela



Aginagalde taberna merezitako txapelduna izan degu

txapelketa irabazteko faborito nagusienak. Ez da horrela gertatu hala ere, final erdietan Axier Kirolak taldeak jipoi ederra eman baitzion.

Hala ere, ez zaio meriturik kendu behar txapeldun berriei. Hasieratik sendotasun handia erakutsiz erregulartasuna izan dute beren lagunik hoberena eta azkenean jaso dute beren saria: txapelketa irabaztea.

**Plaieroak
antolatzeko jende
gehiagoren laguntza
behar da**

Kopa aldiz aurtengo honetan debalatu xamarra geratu da, lau

taldeen artean jokatu baitute bakarrik. Kabi Taberna izan da txapeldun, finalean Urberu taldea gailendu ondoren.

Partaidetza eta ikuslego aldetik nahiko arrakastatsua gertatu bada ere txapelketa, antolaketa aldetik ezin da gauza bera izan. Pertsona bakar batek eraman du antolatzaile lanen ardura guztia eta gainera jokalaria bat gehiago izan degu.

Hurrengo urterako, desiragarria litzateke antolaketarako jende gehiagok laguntzea, horrela hobeto eta errezago irtengo bailitzateke plairotako txapelketa. Ez ahaztu gainera, amaitu berri diren plaieroak ez antolatzeko zorian egon direla...

PALA TXAPELKETA AURRERA DOA

Kanpoko bikoteak oraingoz nagusi ditugu

Urte batzutan antolatu gabe egon bada ere, aurten berriro martxan jarri da Zumaiako gomazko pala txapelketa. Herritar batzuen inizatibaz eta Zumaiako Pilota Elkartearen laguntzaz antolaturiko txapelketa hau martxoaren 24ean hasi zen eta San Pedrotako jaietan izango du amaiera.



Kanpoko bikoteak jaun eta jabe dira.

Hiru talde ezberdinetan banatu diren 21 bikote hartzen ari dira parte txapelketa honetan, hauetatik sei kanpokoak izanik: hiru Aizarnazabalekoak, Elgoibarkoa bat, mendarotarra beste bat eta Azpeitiako beste bikote bat azkenik.

Guztien artean ligaxka bat jokatu ondoren, talde bakoitzeko lehenengo biak final laurdenetara saikatuko dira eta honekin batera hirugarren geratzen diren bi hoberenak.

Bikote kopuru polita apuntatu da, kontutan hartzen badegu txapelketa hasi baino egun batzuk lehenago oso gutxi zirela izena emandakoak. Azkenean ordea, uste baino jende gehiago animatu da.

Orain arte ikusitakoaren arabera, kanpoko bikote horiek ditugu jaun eta jabe. Hauetako askok beste hainbat herritako txapelketetan ere jokatzen dute eta maiztasun handiz, gainera; ondorioz, maila ere oso altua dute.

Hau argi eta garbi isladatu da gaur arte jokatutako norgehiagoketan, herriko bikote gehientsuenei errepasso handiak ematen ari baitzaizkie.

Salbuespen bat edo beste badago, baina orokorrean erreztasun handiz ari dira irabazten kanpokoak. Edonolan ere, oraindik txapelketa ez da amaitu eta San Pedroak bitartean espero dezagun herrikoek beren jokoa hobetzea edota gutxienez hortzak erakustea. ■

ARGIA

Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

**ZALLA
TABERNA
ERRETEGIA**

Plater konbinatuak • Otartekoak
OILASKO ERREAK

San Pedro, 4 Tel: 862387
ZUMAIA

ITZURUN

KIROLAK

Amaiako plaza, 13
Telef. 860758
20750 ZUMAIA

KOSTA GAS

GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tlfoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert

ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua
expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

**GURE TXOKOA
TABERNA**

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

Gazte Batzordea berpiztu da!!

Joan den hilaren hasieran izandako bileran, 70 gaztetik gora bildu ginen Gazte Batzordea berpiztu asmoz, eta bai lortu ere! Bertan, dinamika berri bat proposatu zen, hau da, hileko lehen ostiralean biltzea, eta bertan hilabete guztirako ekintzak planteatzea. Gazte Batzordearen funtzionamenduaz ere luze hitz egin zen, orain praktikara eraman behar.

Horrela, bi ekitaldi proposatu ziren maiatzari begira: batetik, logotipo eta kamiseta lehiaketa bat, eta bestetik, jai giroko asteburu bat, Gazte Batzorde honen III. urteurrena ospatzeko.

Lehenago maiatzaren 5ean egin genuen beste bilera bat eta bertan lehiaketako irabazleak aukeratu ondoren, urteurreneko egitaraua zehazten aritu ginen.



Hala ere, San Pedroak ere gainean ditugunez, eta zerbait antolatu asmoz hilaren **12an**, ostiralean gaueko 10etan Oxford-en beste bilera bat egitea erabaki zen. Azaldu beldurrik gabe!

ANDER ODRIOSOLA "OBITX"-entzat bi sariak

Lehenago ostiralean bileran bildutakoan artean Logotipo eta kamisetentzako Irudiaren lehiaketako bi sariak "Obitx" azpeitiarrari ematea erabaki zen. Sari bakoitzagatik **10.000 pzta** jaso zituen

Irudiarekin kamisetak ateratzeko asmoa dago, ahal bada urteurreneko asteburu horretarako. Bazen, egia esan, kamiseta berriak ateratzeko garaia. Logotipoa, berriz, goian azaltzen dena da, eta zigilua ere atera nahi da hortik.

Bestalde, Dani Carballoren irudia ere kamisetan sartzea erabaki zenez, honi akzesit moduko bat ematea pentsatu zen.

Maiatzean III. urteurrena ospatuz

Hainbat ekitaldi izango dira maiatzaren 18,19 eta 20an Gazte Batzordearen 3. urteurrena ospatu asmoz. Egitaraua erabat zehazteko badago ere, aurrerapen bat hemen doakizue:

18, osteguna.- Aita Mari zineman, "**Justino, un asesino de la tercera edad**" filmea, gaueko 10,15etan.

19, ostirala.- Mahai ingurua. Gaia: "**Gaztetxeak Euskal Herrian**". Parte hartuko dute Euskal Herriko hainbat gaztetxe eta gazte asanbladetakoko jendeak.

20, larunbata.- Gazte eguna.

Eguerdiko 1ean, poteo herrikoia txapelarekin.

2'30etan, Bazkari herrikoia Bazkal ostean, jokuak kuadrilen artean.

Ondoren kalejira alaia.

Gauean frontoi txikian, **rock kontzertua.**

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057
20750 ZUMAIA

Hemen dezue Frantziako zulo beltzetik, San Telmoak direla eta, Patxi Aristik bidali digun kopia sorta. Doinua "Egun da Santi Mamina" izenekoa da, eta leloa edo estribilloa tarte guztietan errepikatzen da. Ea Patxik bezalaxe zuen lanak bidaltzen jarraitzen dezuen!

(Leloa)

Horra Zumaiko berriak
kopia itxuran jarriak
egiak entzun nahi ez ditunak
sobran ditu belarriak

1)


Txistu kantu ta panderoz
festa alaitzera gatoz
ez zera asperturik joango
gurekin baldin bazatoz

2)

Kriston modernitateak
dakarzkigu alkateak
belero kaia behar omen degu
Zumaiako biztanleak

3)

Hauxe astakeri fina
herrien bizkar egina
geu ere alde egon gintezkeen
belerodunak bagina



4)

Ondo pentsatzen hasita
blusa urdina utzita
politagoak egongo gara
marineritox jantzita

5)

Kai honen aurka gaude gu
txoropitoren bat salbu
Nork nahiko luke bere herria
turismoaren esklabu

6)

Masokistak izan gabe
oker ez baldin bagaude
balegoke non enpliatua
hainbeste milioi badaude

7)

Ea ba zahar eta gazteak
gizon eta emazteak
denon artean geldituz
datorkigun desastrea



JUSTA
TABERNA
EGUNEROKO
BAZKARIAK

Erribera kalea 20, Zumaia

KALARI TABERNA
JATE TXEA

- * Eguneko menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA

"Pecata Minuta"

ANTZERKIA

Maiatzaren 13an antzezlan bikain bat ikusteko aukera dugu Aita Mari zineman: Karraka taldearen "Pecata Minuta". Herrian jende asko dago antzezlan hau ikusteko gogoz eta bi emanaldi eskeiniko dira, arratsaldeko 8etan gazteleraz eta gaueko 10etan euskaraz. Sarrerak aurrez jarriko dira salgai zineman bertan.



Maiatzak
26
ostirala

Egun honetan, "HITZERDI" taldeak "Izan ala..." izenburua duen antzezlan estreinatuko du Aita Mari zineman, gaueko 10etan. Inaxio Tolosa eta Mixel Murua aritu dira aspaldi hontan lan hau prestatzen. Zumaian estreinatu ondoren, beste herrietan ikusi ahal izango da.

Argazki erakusketa "Zurrumurruak"

Forondan argazki erakusketa eder bat izango da maiatzaren 4tik 21a bitartean: Julio Mendikute argazkilariaren txuri beltzeko lanak.



Itsaspeko Zinema Zikloa

Maiatzean izango degu iaz lehen aldiz gure herrian izandako ihardunaldi hauen bigarren edizioa. Maiatzaren 11ean eta 25ean Aita Mari zineman emanaldi bana izango dira, eta maiatzak 19an, ostiralez berriz, Forondan, hitzaldi-mahainguru bat.


Maiatzak 11

"Wild life on one devilfish" (Britainia handia, 28')

Olagarro erraldoien ezaugarri biologikoak Ipar Pazifikokan

"Marrazoak erasoan" (EEBB, 49')

Marrazo ezberdinen ohiturak zenbait itsasotan



"Les Illes Columbretes" (Valencia, 29')

Irla hauetako itsasoko nahiz lehorreko ikuspegia

"A sea otter story" (Britainia Handia, 54')

Pazifikoko itsasoko iparraldean itsas nutrien bizimodua

Maiatzak 25



AIZPURUA

LIBRERIA

OPARIAK

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefona: 861569
20750 ZUMAIA



ERTZ INFORMATIKA

Mendaro Martiela 3

TEL: 14-33-95

Zure INFORMATIKako Denda

-ORDENAGAILU P.C

-INPRIMAGAILU

-CD-ROM

-KRISTALEZKO PANTAILAK

-DISKETTEK



Maiatzak 18
gaueko
10'15etan


Gazte Batzordeak eta
"Oztarreña Zine-
Klubak" antolatua

AKTOREAK: Saturnino García
Juanjo Puigcorbe
Alicia Hermida

ZUZENDARIA:
La Cuadrilla
(Luis Gurudi- Santiago Aguilar)

Justino, un asesino de la tercera edad (1994)

F.F.Gomez, M. Ferreri eta Luis G. Berlangaren 50.hamarkadako zinetik hona espainiar zineak ez zuen horrelako filmerik egin. Umore beltzaren filme kritikoa, jatorra eta berezia. "Typical Spanish"-en erradiografia mingotza eta xamurra, tristezia eta itxaropenez beteta. Komedia beltza, gogorra eta parregarria. Gomendagarria benetan.



IRAKURKETAKO AUKERAK

Udal liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat

Euskaraz

EUSKALDUNEN AMERIKA:
Bidaia bat EEBBetan zehar
HIRU ARKUKO ZUBIA
EUSKOEUROPA
ASTEROKO GURPILEAN

Joseba Etxarri
Ismail Kadare
Ludger Mees
Luis Mari Mujika

Gazteleraz

- NO ME ESPEREN EN ABRIL
- LA BALADA DE JOHNY SOSA
- MAS ALLA DEL JARDIN
- CAMINO DE PERDICION
- ARDOR GUERRERO
- LA ORDALIA DEL VENENO



Alfredo Bryce
Mario Delgado
Antonio Gala
Luis Mateo
Antonio Muñoz
A. Vazquez-Figueroa

Gure herkide dugun Jon Suduperen azkenliburua ere aurki dezakezue gure liburutegian

ILUSTRAZIOAREN KRISEILUPEAN
Jon Sudupe



Beste hizkuntzetako literatura (gazteleraz)

- EL HOMBRE ROTO
- NUESTRO JUEGO
- EL SANTUARIO DE ALTAMIRA
- UN DISGUSTO PASAJERO
- EL OJO DEL TIGRE
- PULP FICTION

Tahar Ben Jelloun
John Lecarré
John L'hereux
Françoise Sagan
Wilbur Smith
Quentin Tarantino



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA AUTOAK

Juan Belmonte, 45
ZUMAIA

Telefonoa: 861485
Fax: 143143

E G U Z K I
PUB
KOKTEL BEREZIAK
Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

ITSASKI
supermerkatua

Urumea kalea z/g
Zumaia

ZUMAIAKO I. BALEIKE KOMIKI LEHIAKETA

Aldizkari honen lehen urteurrena dela eta, beste zenbait gauzen artean komiki lehiaketa hau antolatu degu, Arte Taldekoen laguntzarekin herriko eta kanpoko komikigile guztiei zuzendua.

Oinariak zehazki eta bere osotasunean biltzen dituen eskuprograma bat ere badago interesatuen esku, baina baldintzarik aipagarrienak laburbilduko dizkizuegu jarraian.

Lehiaketan 14 urtetik gorakoek har dezakete parte eta pertsonaiak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Marrazkiak txuribeltzean izan beharko dute, lumaz, errotuloz, pintzelez edo boligrafoz eginak eta 18x25 neurrikoak.

Lanak ekainaren

16a bitartean aurkeztu ahal izango dira Foronda Kultur Etxean.

Lanak bi sobretan aurkeztuko dira; handiengan komikia sartuko da eta kanpokaldean "ZUMAIAKO I. BALEIKE



ekainak 23an emango dute ezagutzera beren erabakia.

Sartu gabeko lanak hilabeteko epean jaso daitezke. Bestela, saritutako lanekin batera Baleikeren jabegopean geratuko dira.

Baleikek kasu guztietan aurkeztutako lan guztien argitarapen eskubideak izango ditu.

Sariak honako hauek dira:

1. saria
25.000 pzta

2.saria
15.000 pzta

Z u m a i a r
onenarentzat
15.000 pzta

"LEHIAKETA" eta lanaren izenburua edota egilearen ezizena jarriko dira. Txikiaren kanpokaldean izenburua edo ezizena jarri eta barruan lehiakidearen datu pertsonalak sartuko dira.

Epaimahaia gai honetan adituak direnen artean osatua izango da, eta

Badakigu epe oso luzea ere ez dela eta nahiko lanpetuta ibiliko zeratela, baina tartetxoretzat bilatuko dezue, ezta ?

Badakizue argibide gehiago nahi badezue, eskuprogramak ere badituzuela Forondan bertan. ■

IHINTZA
taberna
Tlf: 860472
Ortega y Gasset, 3

TXALAPARTA
O P A R I A K
Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)
Telf: 14 30 89
Fax: 43 06 37

ZUMAIAR
LOREDE NDA
LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK
Erribera, 1 Telefonoa: 860375
20750 ZUMAIA

MARTXAUNDI II

MARTXAUNDI, Tolosako taldeak elkartzen dituen maketa formatoko bilduma bat dugu, baina ez da hori soilik. Ideia amankomunak dituzten zenbait elkarte elkarrekin bultzatu nahi duten proiektu zoragarri bat baizik. Tolosako Galtzaundi euskal taldeak bertako musika taldeekin batera herriko taldeak, herri kultura eta herriko hizkuntza, Euskara, bultzatzeko asmotan eskeintzen digu proposamen interesgarri hau. Zinta entzuten dugun bitartean zenbait gauzatat konturatu gaitzke, zuzenean, azaltzen diren taldeek orokorki eskeintzen duten kalitatea eta musika estiloen bariazioak, denetik entzun dezakegu **MARTXAUNDI**ren bigarren ale honetan. Bertan azaltzen diren 13 taldeak ezagutuko ditugu oraingo honetan.

Rebeldy Tximak taldekoak dira zintan lehenbizi entzun daitezkeenak. "Akabo" sexu harremanetaz hitz egiten duen abesti bat da. Funky eta Rock erritmoak nahasiz eta hitzetan erabiltzen dute ironia hori gehituz oso alai egiten dute abesti hau.

"Nahitaez" gaur egunean oraindik ere etxeko lanetan sexu ezberdinekoen artean dauden desberdintasunak salatzen dituen abesti bat da. **Marruma** taldeak eskeintzen du Rock giroan, baina baita Funky toketxo batez.

Deabruak Teilatuetan taldea ezagunagoa da, badu eta aurretik bakarka kaleratutako maketa bat. "Collage" nahiko akustiko datorren balada goxo bat dugu.

Rock gogorragoarekin sartzten da

Jo Ta Okupatu ren "Infernu alai" abestia, potereari egindako salaketa batekin.

Autokritika pertsonal bat da **Hard Maon** taldekoek "Etsairik Handiena" abestiaren bidez esaten digutena, Rock estiloaz baliatuz.

Euskal kolore alaiak **Trikiti**rikoek ematen digute. Emakume hauek beren umore ona argi uzten dute "Amari hor konpon" doinuaren.

Maketa honen bigarren alden sartzten garenean Rock soinuak itzultzen dira. **The Window Ventanas** tolosako talde beterano bat dugu. Hiru dira kalean dituzten maketak; aurten diska bat autoproduzitzeko asmoa ere bazuten, baina oraindik ez



Uncle Mussels

dute kaleratu. Oraingoan moldaketa batekin etorri dira; Sex Museum talde madrildarraren "Friends" abestia da, baina euskarara itzulita, noski. Oso ona, beraiena den "Itxura aldaketa" bezala.

Hart Ta Sartu's Band Blues eta **Rock & Roll** talde bat da. "Pintxana"n herriko kontuak kontatzen dizkigute blues alai batean.

Hard-Rockaren ordua **Uncle Mussel**ekin ailegatzten da. Martxaundiren bigarren honekin batera beren lehen maketa kaleratu dute. "Eskerrak" da bertan entzun dezakegun abestia.

Berezitasunak ere aurki daitezke hemen, bereziak baitira eta zeharo gainera **Atila y Los Hunosekoak**; gure herrian izan zirenean ere hortaz konturatu ginen. Pop-Ska doinuak nahasten dituzte "Alperrari oharra" kanta honetan.

Soraiokoek Hard-Rockera bueltatzen gaituzte, "Nor zara" abestian.

Waikak berriz, emakume ahotsean eskeintzen digu "Delta iristezina" abestia, Rock musika folkarekin nahastuz.

Bluesak ixten du maketa hau eta **Parkingsong's** taldearen eskutik dator "Funky Mama" instrumentalarekin.



Trikitiri

**TXOKO
TABERNA**

Artadi auzoa
ZUMAIÁ


*Jesuskoa
Faletxea*



Araua 86 17 39 • C/ikia Zumaia



Gurutzegram



EZKER ESKUIN: 1.-Ez arrak. Gogor, bortitz. 2.-Merkataritzaz bizi dena. 3.-Barazki ezaguna. Bat. 499. Rötgenen sinbolo kimikoa. 4.- Karibeko estatua. Inbutua. 5.-Itakako alegiazko erregea. Autonomia Elkarte. 6.-Begietatik jausten diren negar-tantak. Errepikatuz, txori mota. 7.- Gaisoa. Bakar. 8.-Janari ongarrria. Sortu zintuena. 9.- Errepikatuz, gorotza. Kanpai txikiak. 10.- Ogi egilea. Gironako ibaia.

GOITIK BEHERA: 1.- Emakume. 2.- Mezu igorleak. 3.- Erabili dena. Iodoaren sinbolo kimikoa. 4.- Pluralean. Askatzearen egintza eta ondorio. 5.- Portu. Bi bokal. Gabezia. 6.- Tona. Gurasoen anaiak. 7.-Bezainbeste. Hizki baten izena. Idi, hitz elkarketan. 8.-Ugaztun hausnarkari iletsua. Karrika. 9.- Titanioaren sinbolo kimikoa. Lezamako. 10.-Zaude. Zintzoak.

Zaldiko maldiko

Xakeko zaldunaren mugimenduz baliatuta eta koadroan azaltzen den lehen silabatik abiatuz (GI), osa ezazu Orson Welles zinegile famatuaren esaldia.

Erantzuna:

GI	E	DUN	A	NA
JA	I	ZO	DI	RIA
NA	TZIK	ZAN	REN	TZE
DA	I	RI	MO	UN
GAI	ME	HA	O	ZO


Negar egiteko txistea

HEGAZKINBATEKO azafatak mikrofonotik:

-Bidaiariok, bi albiste ditut, bata ona eta bestea txarra. Txarra, gizon batzuk hegazkina bahitu dutela. Ona berriz, Caribera joan nahi dutela.

Zaldiko maldiko: Gizonaren zorrigatizik haundiena memoriatan jaitzea izanda

JUARISTI JATETXEA



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 Tlf: 861853



* SUKALDERAKO ALTZARIAK
* ELEKTROGAILUAK
* BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA
Erribera, 8
Telefonoa: 861694

Galdona



Mendaro mariñela, 1
Juan Belmonte, 15
Tlf: 86 11 17 / 14 33 46
Fax: 861330
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



Erribera kalea, 17
Tlf: 14 32 56

Sarmentak:

- Untziak (Jeanneau, Rodman, etab.)
- Surf tabla eta Bodyboard (Taosia, H. Buttered)
- Arrari zako artikulua

KONPONKETAK, PLASTIFIKATUAK, POLIESTER, PINTAKETAK, ANTIFOULING IPINTZEA, OSHOSIS TRATAHENDUA. AURREKONTU ETA IKERKETA TEKNIKOAK EDOZEIN HOTATAKO ERREFORMA ETA KONPONKETARAKO.

AGURRAK

Buitraker: 15-1

Itzi, jaso ezazu guztion doluminik saminena. Altxa burua mundua ez da hemen bukatzen eta.

Zorionak tortolitos!!



Xoxua, txikitan bai hintzala mutil guapua. Orain berriz kalabaza batza jartzeko moduan hago motel!

Aurten denok gara freddy, baietz freddy txiki, baietz freddy Juanjo?

Salmenta puntuak

- Jesuskoa
- Errota (Erribera)
- Errota (Basadi)
- Ogi Berri (Amaiako plaza)
- Ogi Berri (Basadi)
- Arkupe okindegia
- Aizpurua liburudenda
- Olano liburudenda
- Loitz liburudenda
- Alai janaridenda
- Nikol kafetegia
- Inpernupe taberna
- Zalla erretegia
- Foto Gar
- Arroa Beheko estankoa



- 1.-Pedro Uribe
- 2.-Jesus Alkorta
- 3.-Marina Bidasoro
- 4.-Sabin Arana
- 5.-Gema Alkorta
- 6.-Telmo Lisbona
- 7.-Mertxe Argintxona
- 8.-Mari Karmen Egaña
- 9.-Sabin Atxurra
- 10.-Miguel Angel Mancisidor
- 11.-Jose Egiguren
- 12.-Garbiñe Esnal
- 13.-Abel Yeregui



Aldaketa EAren

L ehiaketa



Musikazale hau zein den asmatzen dezuenen artean, **Txapartegi gozotegiak** eskeinitako tarta eder bat zozketatuko degu.


Utzi zure erantzuna eta datuak Foronda, ONCEko kabina edo Txapartegi bertan **maiatzak 26a** baino lehen, eta zorte on!

Lehenengo hilabeteko erantzuna SAN TELMO KALEA zen eta **Kepa Aizpuruari** egokitu zitzaion "San Markos" tarta goxoa. On egin!

ZUMALIAK

BEHAR DUENA

udal
abertzale
eta
ezkertzalea



**HERRI
BATASUNA**